



Maixa Zugasti idazlea, bere liburuaren aurkezpenean, Donostian. JAGOBA MANTEROLA / FOKU

Gaixotasunaren «iluntasuna arintzeko» hausnarketak

→ 'Itzala. Gaixotasun baten kronika' liburuak plazaratu du Maixa Zugastik, Erein argitaletxearekin. Egileak bere eritasunarekin dituen gorabeherak azaltzen ditu. Lan «hibrido» bat da, saiakera eta egunerokoa uztartzen baititu.

Amaia Jimenez Larrea

Maixa Zugasti idazlea (Tolosa, Gipuzkoa, 1973) bolada zail batean zegoen Uxue Razkin Erein argitaletxeko editoreak proposamen bat egin zionean: «Inoiz pentsatu al duzu gaixotasunaren inguruan idaztea?». Izan ere, gaixo dago Zugasti, eta, proposamen hori jaso aurretik, «pentsatzea, irakurtzea eta idaztea» eragotzi zion gaixotasun horrek. Hasieran, ez zion jaramon handirik egin ideari, baina egunak igaro ahala, pixkanaka, gero eta indar handiagoa hartu zuen. Hala, bere hausnarketak eta bizipenak bilduz joan da poliki-poliki, eta holaxe osatu du *Itzala. Gaixotasun baten kronika* liburuak. Erein argitaletxearekin eman du argitara. «Ez dut inoiz neure buruaz hain zuzenean idatzi», aitortu du egileak.

Hiru ataletan banatuta daude liburuko testuak, eta, bertan, egunerokoa eta saiakera uztartu ditu idazleak. Egunak hiru zati izaten ditu Zugastirentzat, eta hortik

dator testuak hala antolatzeke erabakia. «Egun bakoitzak bizitzaren itxura asko erakusten dizkit». Eguneroko gisa idatzita dauden pasarteak, hain zuzen, jazotako ordu zehatzarekin daude adierazita. Adibidez, honela adierazi du bere goiz bat: «11:30. Goiza hala moduz igaro dut. Nire gorputza ezin zen mahai-lanaren aurrean eserita egon, eta mugitu egin naiz. Urte hauetan ikasitakoak ez du hutsik egin: ondoren, oinazeari ezina gailendu zaio, eta aldapa malkartsuagoa bihurtu da».

Bere egoeraren inguruan gogoe ta egitea nolabaiteko aringarria izan da Zugastirentzat: «Nire gaixotasunak bizia kentzen dit. Hausnarketak iluntasuna arindu nahian dabilta, ondo bizi ahal izateko».

Hainbat binomio baliatu ditu liburuko testuei tituluak jartzeko: *Osasuna/Gaixotasuna*, *Baietza/Ezetza*, *Lana/Atsedena*... Eta, tartean, honelaxe dio *Barrea/Negarra* izeneko ataleko lehen esaldiak: «Begiak itsasargi bihurtzen dituen olatua da alaitasuna».

Razkinen ustetan, idazlearen ikuspuntuak «beste aspektu batera» eramaten ditu gogoetak.

«Ez nuen helbururik»

Liburuak idazteko gonbidapena jaso berritan, zenbait galdera izan zituen idazleak buruan: «Zergatik? Norentzat? Zertarako?». Hala ere, «izuak ez zuen gonbidapena ezabatu», gaineratu duenez. 2023an hasi zuen idazketa prozesua, eta hainbat gauza ikasi ditu bidean; tartean, idazteko modu berriak. Kontatu duenez, gaixotasunak bide berri bat ireki zion, jabetu baitzen ezingo zuela ohiko saiakera bat idatzi. Eta, zehazki, horretaz jabetzeak lagundu dio gehien *Itzala* ontzeko bidean: «Ez nuen helbururik, ezta idatzi beharreko liburu baten ardurarik ere».

Gaixoaldirik gogorrenetan egonda ere, Zugastik beti izan du

helduleku bat: literatura. «Bizitzen lagundu dit», gaineratu du. Gertatu zaion horren inguruan idazteak lagundu dio, nahiz eta ez duen terapia gisa hartu. Azaldu duenez, bizi izandako gauza batzuez gogoratzeke liburura jo behar izan du, ahaztuta baitauzka haietako hainbat. Literaturarako zaletasun horretatik tiraka, idazleak beste egile batzuen testuak tartekatu ditu bere idazkien artean. Haietako bat izan da Rosalia de Castro (Santiago de Compostela, Galizia, 1837-Padron, Galizia, 1885); Zugastik adierazi du berarentzat «berezia» dela. Bere bizialdiaren parte batean gaixo egon zen De Castro, eta bere lanetan ere islatu zituen gaixotasunak utzitako arrastoak. Idazlearen poema bat aurki daiteke liburuan —*Itzal beltza*—, Inazio Mujikak itzulia.

Ez-fikziozko lan bat da *Itzala*, eta horrelako liburuak editatzeak dakarren erronkaz mintzatu da Razkin: «Esperientzia bat nola islatu asmatu behar da. Zer esaten den, eta nola, hori da garrantzitsua». Halako testuetan, bizipen pertsonaletatik abiatzen direnez, ezer ezin dela asmatu gehitu du editoreak, baina erabaki batzuk hartu behar izaten direla. Bide horretan Zugastik egindako lana goraiatu du: «Ezin da ezer asmatu, baina imajinarioari eragin behar zaio. Maixak ahots propioa eraiki du; soila eta ausarta». ●



«Nire gaixotasunak bizia kentzen dit; hausnarketak iluntasuna arindu nahian dabilta, ondo bizi ahal izateko»

MAIXA ZUGASTI
Idazlea

HITZ GUTXITAN

Veneziako Biurtekoko epaimahaiak dimititu egin du

ARTEA— Maiatzaren 9an da hastekoa Veneziako Biurtekoko, eta, aste bete pasatxo baino falta ez dela, dimisioa aurkeztu dute epaimahaiko kide izatekoak ziren guztiek. Errusia eta Israel ere onartu dituzte aurten, eta horregatik dimititu dute bai zuzendariak, bai eta beste lau epaimahaikideek ere. Antolatzaileek iragarri dutenez, horregatik, aurtengoan biurteko bisitariak hautatuko dituzte irabazleak.

Ipar Afrikako sorkuntza Tabakalera ikusgai

ZINEMA— *Nafidha. Magreb irudikatua* programak Magrebeko eta Ipar Afrikako sorkuntza garaikidea erakustea du helburu, eta horretarako, filmak, mahai inguruak, lantegiak eta hitzaldiak eskainiko dituzte Donostiako Tabakalera. Maiatzaren 24ra bitarte, esaterako, Fermin Muguruzaren Checkpoint Rock, abestiak Palestinatik proiektatuko dute, baita, Next Music Station sailean, Maroko, Egipto, Tunisia eta Libano herrialdeei eskaintako dokumentalak ere.

SAN TELMO MUSEOA

Asteartetik igandera: 10:00-20:00
www.santelmomuseoa.eus



Erakusketa

Argiaren itzala. San Telmo Museoa, dantza laborategia

STM

San Telmo Museoa